

EDUKIAK:

1. Ebaluazioa

- ✓ Bistak eta hirugarren bista osatu.(Hau kurtso osoan zehar landuko da)
- ✓ Marrazketa teknikorako tresnak.
- ✓ Oinarrizko kontzeptu geometrikoak.
- ✓ Segmentuak.
- ✓ Perpendikularitasuna eta paralelitasuna.
- ✓ Angeluak
- ✓ Planoko mugimenduak. Traslazioa, biraketa eta simetria.
- ✓ Berdintasuna, antzekotasuna eta baliokidetasuna.
- ✓ Eskalak.
- ✓ Triangeluak.
- ✓ Laukiak.
- ✓ Poligono erregularrak eta euren izartuak. Artezketak.

2. ebaluazioa

- ✓ Formatuak. Errotulazio koadroa. Lerro arautuak eta eskalak
- ✓ Adierazpenaren printzipio orokorrak: bistak, mozketak, hariak eta beste itzarmen batzuk.
- ✓ Akotazioa.
- ✓ Ukitzaileak.
- ✓ Librecad.
- ✓ Kurba konikoak.
- ✓ Obaloa, oboidea, kiribila eta helizea

3. ebaluaketa

- ✓ Sistema diedrikoaren oinarriak. Puntua, zuzena eta planoak.
- ✓ Sistema diedrikoan elkarguneak.
- ✓ Perspektiba axonometrikoa eta cavaglieri perspektiba.

MATERIALA: konpasa, eskuaira, kartaboia, portaminas (edo arkatzak), tinta beltzeko errotulagailuak marrazketa teknikorako (rotrin antzekoak), marrazketarako orri bereziak.

OHARRAK: Urtariletik aurrera astean behin ordu bat erabiliko da LIBRECAD emateko.

Mugikorra ezin da klasean erabili eta ez da begibistan egon behar. Ariketaren batetan kontsulta moduan erabiltzea derrigorrezkoa izatekotan irakasleari baimena eskatu behar zaio beti.

KALIFIKAZIOA ETA BERRESKURAPENA:

Batxilergoko Lehen eta Bigarren Mailan ikasleek marrazketa teknikoak ikasgaia ongi jarraitu, menperatu eta ikasteko derrigorrez ariketa praktikoak eta laminak egin beharko dituzte. Hauetan garbitasuna, zehaztasuna, arrazonamendu logikoa eta problemak garatzeko duten trebezia frogatu beharko dute programaketako gaiak lantzen diren bitartean.

Ebaluazio bakoitzean azterketa praktiko bat edo bi egingo dituzte eta **hauek gainditzeko derrigorrezkoa izango da lehen aipaturiko ariketa praktiko edo laminak eginak eta irakasleari emanak izatea.**

Azterketek ebaluaketako notaren %80 balioko dute eta ariketa praktikoek %20.

Ikasturte guztian ikasleen lan praktiko hauen jarraipen zuzena eramango du irakasleak. Ebaluazioak berreskuratzeko, ordura arte aurkeztu ez diren lanak bildu eta berreskurapen azterketa (ebaluazioa eta gero 15 egun baino lehen egingo dena) baten aukera izango dute, hirugarren ebaluaketan ez ezik. Ikasturte amaieran izaten den azterketa orokorren pilaketa dela eta, eta sortzen den denbora estuasunagatik, hirugarren ebaluaketaren azterketaren berreskurapenik ez da izango. Ikasleak atal hau berreskuratzeko, gainditzeko izan ditzakeen beste atalekin batera, ekaineko azterketa orokorra egingo du. Azterketen kalifikazioa lehen aipatu bezala, ariketa praktikoena baino askoz garrantzitsuagoa izango da ikaslearen ebaluaketa egiten denean, hain zuzen ere selektibitateko nota ordu eta erdian eginiko azterketa batean oinarritzen denez, unibertsitateko lan ohitura horietara egokitzen joan daitezten.

Ikasleak ekaineko ebaluazioa gainditzen ez badu, ekaineko ezohizko frogara orokorra dauka. Bertan **ikasturte osoko gaitegi guztiaren galderak izango ditu.**